

MAREA MOREA



Lore Lasa Zurbano-Beaskoetxea, Joane Eguia Unanue eta Maren Irazola Iriondo

SARRERA

Feminismoa ez da mugimendu sozial soil bat; gizarte-egiturak astindu dituen pentsamendu-korronte historiko bat baizik. Aspaldi sortu bazen ere, emakumearen berdintasuna lortzeko borrokak eta bideak etengabe aldatu dira historian zehar, helburua, aldiz, finkoa da: berdintasuna lortzea eta generoaren araberako desberdintasun eta bazterkeriak desagerraraztea. Gaur egun, feminismoa ezinbesteko tresna bihurtu da diskriminazioei aurre egiteko eta bidegabekeriak borrokatzeko. Hala ere, feminismoaren barnean aniztasun handia dago, gehien bat ikuspegi historiko desberdinak eta borroka bide ugariak direla eta. Beraz, feminismoaren zergatiak datuetan konprobatu eta hauekin justifikatu daitezkeen arren, feminismoa ez da diskurtso finkoa, baizik eta etengabe berrizten dagoen mugimendu soziala.



HISTORIA


Feminismoa, nahiz eta formalki ez zen XVIII. mendera arte zabaldu, historian zehar beste hainbat emakumek, gizarteak haiei inposatutako rola zalantzan jarri zituzten eta salatu egiten zuten egoera. Esate baterako, Moderata Fontek XVI. mendean gizartean emakumeekiko zegoen tratua desberdina kritikatu zuen. Horregatik, nahiz eta momentu hartan feminismo terminoa ez existitu, aurrerapauso erabakigarriak egin zituzten hainbatek, gaur egungo bizimodura heldu arte. XVIII. mendean, Frantziar Iraultzarekin batera, gizonaren eta hiritarraren eskubideak idatzi zituztenean, emakume asko ohartu egin ziren emakume izateagatik bizitzen ari ziren errepresioaz. Orduan, horren aurka borrokatzen hasi ziren, emakume horien artean Olympe de Gouges izan zen modu publikoan hitz egin zuen lehenengoa, eta artikulu baten bitartez, emakumeek zein gizonen eskubide zibil berak eduki behar zituztela aldarrikatu zuen. Argitaratze horrek feminismoaren hasiera, baina baita bere bizitzaren amaiera markatu zituen, izan ere gillotinatzen hil zuten. Gerora, XIX. mendean ere hainbat emakumek, egoera aldatzekoaren aldekoek, hitzaldi eta batzarren aurrean indarra erabiltzen zuten erantzun gisa, emakumezkoen sufragio unibertsala eskatuz. Baina, Espainian gutxienez ez zen 1931ra arte lortu, Clara Campoamorren defentsa sutsuaren bitartez. Hori gutxi balitz bezala, feminismoak beti izan ditu kontuan beste minorizatutako taldeen borrokak, laguntza eskainiz, esklabismoa besteak beste. Gaur egun, feminismoak globalki jaso du merezi duen aitortza. #MeToo bezalako mugimenduak egin dira azkenaldian, zeinetan hainbat emakumek haiek bizitako sexu-jazarpen kasuak salatu dituzten sare sozialetan, baina oraindik ere bidai luzea dugu.

Feminismoaren eta feministek egindako bidea ez da batere erraza izan, hainbat oztopo izan baitira. Oso kritikatuak izan dira eta horregatik batez ere 90ko hamarkadatik aurrera “feminazi” terminoa zabaldu egin da. Hitz hau feminismoaren aurkako erreakzio gisa kokatzen da eta genero-berdintasunaren aldeko eskaerak deslegitimatzea bilatzen du. Gainera, azkenaldian feminismoaren helburua gaizki ulertu da eta berdintasuna bilatu beharrean emakumea gizonaren gaineratik egotea bilatzen duela uste izan da, horregatik errepikatzen da horrenbeste hurrengo esaldia: “ez feminista ezta matxista, berdintasunaren aldekoa”, desinformazio hutsagatik. Emakumea gizonaren gaineratik egon behar delaren alde egoteari, hembrismo deritza, teorikoki existitzen dena praktikan, aldiz, ez dena ematen.


GAUR EGUNGO EGOERA

Hedatutako informazio faltsuarekin jarraituz, askoren ustez, gaur egun emakumeon egoera ezinhobe da gizonekin alderatuta, egia da legearen aurrean emakumeek eskubide berak ditugula. Hala ere, urtero hainbat emakume hil egiten dituzte genero indarkeria dela eta, izan ere, aurten orain arte gutxienez 13 kasu ezagutzen dira jada.

Gráfico 2.1. Denuncias por violencia de género. Número de denuncias y media diaria. Periodo 2007-2021.



Fuente: Elaboración propia a partir de los datos proporcionados por el Consejo General del Poder Judicial.



Gainera, emakumeek hainbat gizonen laguntza ere izan dugu historian zehar benetako berdintasuna lortzeko bidean. Honen harira eztabaida bat sortu izan da, gizonak feministak ala aliatuak diren. Emakume feminista askok uste dute, emakumeon borroka dela eta gizonak ez direla feministak, baizik eta feminismoaren aliatuak. Bestetik, talde batzuek uste dute gizonak modu aktibo eta egonkor batean egiten duten heinean feminista kontsidera daitezkeela.

Espainia eta Europako beste hainbat herrialde garaturen egoera alde batera utzita, badaude beste hainbat herrialde zeintzuetan emakumeak ez duen horrenbesteko askatasunik. Esaterako, Afganistan da gaur egun irauten duen herrialde matxistenetarikoa. Beste herrialde garatu batzuetan ez bezala, bertan, emakumeek ez dute inolako eskubiderik, ezta askatasunik ere. Alde batetik, Afganistango

emakumeak ezin dira kalera atera inolako ikuskapenik gabe, hau da, ezin dira haien kabuz kalera atera. Bestetik, hezkuntza debekatuta daukate hamabi urtetik gorako emakumeek, eta, ondorioz, emakume gehienek debekatuta daukate lan egitea. Gainera, Afganistanen, indarkeria eta zigor fisikoa zorrotza da eta erabat baimenduta dago. Hori gutxi balitz bezala, 2024-ean emakumei kalean edo toki publikoetan hitz egiteko eskubidea kendu zitzaien.

Egoera hau ikusita, erraz ikus daiteke matxismoaren presentzia oso desberdina dela herrialdetik herrialdera, baztuetan, beste baztuetan baino bortitzagoa baita.

KONTZEPTUAK

Kontzeptuei dagokionez, mugimendu honek haibat hitz eta kontzeptu sortu eta zabaldu ditu, askotan nahastu egiten direnak. Urrunegi joan gabe, *feminismo* hitzak berak gatazka asko sortu izan ditu, bakoitzak era ezberdin batera interpretatzen baitu. Hala ere, hona hemen *feminismo* hitzaren benetako esanahia: *Patriarkatuaren pean emakumeak duen menpekotasunaren kontzientzia hartzea da, eskubideen, autonomiaren eta duintasunaren ekitatea lortzeko eraldaketa bat mobilizatuz*. Definizio hau aztertuz gero, behatu dezakegu, feminismoa ez dela genero edo sexu baten aurkako joera, baizik eta guztion aldekoa. Alabaina, definizioa argi badagoen ere, bakoitzak bere interes propioari egokituz erabiltzen du hitz hau. Hortik abiatuta irtetzen dira honako kontzeptu hauek, besteak beste: *Feminazia*, *mikromatxismoa* eta *hembrismoa*.

Lehen-lehenik: *feminazi* eta *hembrismoa*. Kontzeptu hauek eskumako alderidek sortutako izenak dira, antzinako emakumearen rola mantentzen sahiatzeko, edozein motako aurrerpen sahiakerak ixiltzeko asmoz. Gizonek, emakumeek beraien eskubideak aldarrikatzen hasi zirenean, mehatxu gisa ikusi zuten mugimendua. Horregatik, gizon askok feminismoaren mezua desitxurtzen sahiatu ziren, terminoen esanahi iraingarriak eta faltsuak zabalduz, berdintasunaren aldeko borroka zalantzan jarriz. Momentu horretan *feminazi* eta *hembrismoa* kontzeptuak sortu ziren. *Feminismo* hitzetik abiatuta sortutako izenak dira, aldiz, konotazio negatiboa daramatzate. Alde batetik, *feminazi* hitza bi hitzen uztarketan datza: *feminismoa* (konotazio positibo batekin emakumeen artean) eta *nazismoa* (juduen aurkako militantzia sozialista Alemanari erreferentzia eginez). Argia den bezala, *nazismoa* ez da jasotzeko kontzeptu arin bat, hau da, kontzeptu iraingarria izan daiteke, norberarekiko jasotzen den momentuan. Horrela, *feminazi* hitzak indarra hartu zuen gizadi matxisten inguruan, izan ere, mugimendu aurrerakoia baliogabesteko tresna eraginkorra bilakatu zen. Beste alde batetik, *hembrismoa* matxismoaren aurkako kontzeptutzat sortua izan zen, aitzakitzat harturik, feminismoa gizonen gainetik jartzeko bidea delakoan. Hala ere, *hembrismoa* ez da bizitza errealean ematen den egoera bat (kasuak egin daitezke, noski), baizik eta guztiz asmatutakoa.

Gaur egun ere ikusten da oraindik ere badagoela beldurra gizarte aldaketean aurrean. Ala nola, urrunago joan gabe, Saguntontoko Aste Santuko kalejiraren inguruan polemika handia sortu zen, tradizioa eta berdintasunaren inguruan. Kalejiran gizonak solik parte hartzen zuten, “tradizioak” honela diktatzen duelako, baina bertako emakume askok ez zuten ondo ikusten, eta emakumeen parte hartzea baimentzeko eskaera egin zuten. Eskareak ez zuten espero zen emaitza eduki, erabakia kalejiran parte hartu zuten gizonen artean hartu zen, eskaera deuseztatuz.

Bestalde, *mikromatxismo* kontzeptua Luis Bonino-k sortu zuen laurogeita hamargarren hamarkadan, eguneroko bizitzan agertzen diren jarrera txiki baina kaltegarriak izendatzeko, sarritan oharkabean geratzen direnak, baina, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna bermatzen laguntzen dutenak. Adibidez, emakumeei itxura fisikoari buruzko iruzkinak etengabe egitea edo etxeko lanak zuzenean haiei egokitzea mikromatxismoaren adibideak izan daitezke eta jarrera horiek ez dira zertan agerikoak izan behar beti.

MOTAK

Genero indarkeria ez da eraso fisikoa soilik, askotan kontrol psikologikoa, mehatxuak, isolamendua edo umiliazioa ere badira indarkeria forma argiak. Datuek erakusten dute, kasu askotan, indarkeria ez dela bat batean agertzen, baizik eta harreman baten barruan pixkanaka pixkanaka eraikitzen doana, kontrolaren bidez. Horregatik garrantzitsua da edozein seinale identifikatzea eta biktimen testimonioei sinesgarritasuna ematea.

ESTEREOTIPOAK

Hezkuntza eta komunikabideak funtsezkoak dira gizartean berdintasunaren ideia zabaltzeko. Txikitatik ikusten ditugun rola ez dira neutroak eta genero-etiketak sortzen dute, askotan neskei eta mutilen espero diren portaerak edo eginkoak markatzen dizkietenak. Horrek, ez du soilik norbanakoaren askatasuna mugatzen, baizik eta besteen ikuspegia ere bai. Askotan zer izan behar duten definitzen diete, mutilek indarrarekin eta sentimenduak ez erakusterekin lotuta eta, berriz neskena pasibotasun eta zaintzarekin. Horregatik kontziente izan behar da berdintasuna ez dela soilik legeen bidez lortzen, eguneroko ohituretatik ere bai eta hortik hasita eraikitzen joan beharra dago, rol



horiek kulturalki ikasita daudelako. Gainera, sare sozialak eta publizitateetan gain, zineman, musikan eta bideojokoetan, bigarren mailako pertsona moduan ikusita daude emakumeak Simone de Beauvoir filosofoak esaten zuen bezala eta horrek besteen azpitik jartzeaz gain, emakumearen irudia askotan modu estereotipatu batean erakusten dute, arreta erakartzeko, presioa sortzen, batez ere gazteen artean, askotan autoestimua kaltetuz eta baita pertzepzioak aldatuz, eta horrelako mezuak normalizat hartzekotan, zailagoa bihurtzen da benetako aldaketa soziala lortzea.

ETORKIZUNERAKO BEGIRADA

Emakumearen egoera etorkizun batean alda daiteke, baina hori ez da automatikoki gertatuko. Gizarteak benetako berdintasuna lortu nahi badu, hezkuntzan, politikan, kulturean, lan munduan... aldaketa sakonak egin behar dira, eta hori eginez, etorkizun ideal batean emakumeen presentzia ez litzateke salbuespen ezta mehatxu bat izango, eta ez litzateke beharrezkoa izan beharko etengabe justifikatzen egotea. Hala ere, etorkizun hori lortzeko, gaurtik hasi beharra dago, estereotipoak apurtuz, indarkeria deuseztatuz eta berdintasuna benetan bermatuz. Berdintasuna ez da soilik legetan edo diskurtso handietan eraikitzen, baizik eta eguneroko ekintzetan, horregatik eguneroko ardura kolektiboa behar da, ez norbanakoaren kontzientzia hutsa. Horretarako iruzkin sexisten aurrean barre egin beharrean zalantzan jartzea oso garrantzitsua da, etxeko lanak modu bidezkoan banatzea edo harremanetan botere desorekei begiratzea.